

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gizarteratzea eta laneratzea eraginkorragoa da artatutako pertsonen eta enpresen beharrei egokituta badago

Hala adierazten du gaur antolatu den jardunaldi batean aurkeztutako Errealitate Sozialaren Behatokiko azterketa batek, eta bertan, Laparra lehendakariordeak Gobernuak alor horretan dituen ekimenak zerrendatu ditu

Asteartea, 2016.eko irailak 27

Gizarteratzeko eta laneratzeoko programen arrakasta areagotzen da artatutako pertsonen profilari, enpresen beharrei eta garatzen diren tokiko inguruneei egokitzen badira, Nafarroako Gobernuak Errealitate Sozialaren Behatokiak egindako "[Gizarteratzeko eta laneratzeoko joeren, berrikuntzen eta jardunbide egokien berrikuspena](#)" izeneko azterketak adierazten duenez.



Langile baten irudia.

Bere eraginkortasun areagotzen duten beste faktore batzuk eta inklusio egonkor eta kalitatezko bat bilatzen dutenak, ondorengoak dira: programak diseinatzea, haien bidez enplegua eskuratzen laguntzeaz gain, artatutako pertsonen ongizate subjektiboa hobetzen da; lan-merkatuan sartu aurretik babesa ematea eta baita enplegu bat aurkitu dutenean ere; eragile sozialak eta ekonomia sozialeko erakundeak inplikatzeko; programa horiek egiten diren testuinguruaren gainean informazio eguneratua izatea; eta esku hartze integralak egitea enplegu-eskaera eta haren baldintzak erabakitzen dituzten egiturazko faktoreak eraldatzeko, besteak beste.

Azterketa hori gaur goizean aurkeztu da Iruñean Nafarroako Gobernuak "Lan-merkatu inklusiboa eraikitzeke erronka" izenarekin antolatutako jardunaldian. Bertan, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak parte hartu du, eta alor horretako Gobernuaren ekimen nagusien berri eman du, esaterako: [etorkizuneko bermatutako errenta](#), parlamentuan izapidetzen ari direna; enplegu-plan berria, haren oinarritzko dokumentua [iragan astean aurkeztu](#) zena; gizarteratzeari buruzko hurrengo plana, lantze-fasean dagoena; ERSISI proiektu pilotua, gaur egun Tuteran eta Burundán garatzen ari dena, eta hari buruz Europako Batzordeak laguntza-deialdi baten esparruan egindako ebaluazio positiboa iragan abuztuan [iragarri zen](#).

Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren zuzendari nagusi Patxi Tuñonek ireki duen jardunaldian, bertaratutako jendearen eta arlo horretako adituen artean elkarrizketa irekia izan da, halaber; Nafarroako Unibertsitate Publikotik, enplegu-agentzietatik, gizarte-zerbitzuetatik eta ekimen sozialeko erakundeetatik etorritako adituak dira.

Arrakastarako faktoreak

Aipatu den moduan, "Gizarteratzeko eta laneratzeko joeren, berrikuntzen eta jardunbide egokien berrikuspena" izeneko azterketak arrakastarako faktoreak adierazten ditu, eta faktore horiek gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laneratzeko programa bat eraginkorra izatea ekar dezakete eta lan-merkatuan laneratzeko egonkorra eta kalitatezkoa izatea. Horretarako, Europa ingurunekeo ekimenak eta jardunbide egokiak aztertu ditu, eta kasuren batean, AEBkoak. Nolanahi ere, txostenak dioenez, gizarteratzeko eta laneratzeko programen arrakasta kanpoko arrazoien mende daude, adibidez: egoera ekonomiko orokorra eta enpresek lanpostuak eskatzea.

Lehenik eta behin, programak ahalik eta gehien artatutako pertsonen behar, aukera, nahi eta itxaropenetara egokitzeko beharra aipatzen du eta, aldi berean, lan-merkatuko egiturazko arazoei aurre egiten zaie. Ekimenek, gainera, behar konplexuagoak dituzten pertsonak ere kontuan hartu behar dituzte.

Bestalde, komeni da gizarteratzea enplegu normalizatu batera soilik ez murriztea, bizitzaren beste dimentsio batzuekin lotuta baitago, adibidez: aisialdia, kultur jarduerak, boluntariora edo komunitatearen beste jarduera batzuk. Programek, halaber, artatutako pertsonen ongizate subjektiboa hobetu behar dute.

Arrakastarako beste faktore bat ondorengo beharrari lotuta dago: enpresa-sektorea neurriak prestatzeko eta ezartzeko inplikatzeko ekoizpen-sektorean aurrez dauden eskaerari erantzute aldera. Prestakuntza dualeko programen garapenean ere lagundu behar dute, kualifikazioa praktiketako enpleguarekin nahasten dituzten lan-inguruneetan.

Bestalde, funtsezkoa da tokiko testuingurua kontuan hartzea eta enplegu-agentziei malgutasuna ematea arlo, udalerrri edo eskualde bakoitzaren errealitatera egokitzeko. Alde horretatik, beharrezkoa da informazio eguneratua eta kalitatezkoa izatea honako hauen gainean: langabezia-egoeran dauden bertako biztanleen ezaugarriak; enplegatzaileek eskatutako gaitasun nagusiak; hazten ari diren sektoreak eta garatu gabeko enplegu-nitxoak; eta beste ingurune batzuetako joerak eta jardunbide egokiak.

Programak ez dira oinarritu behar soilik lanpostu bat eskuratzeko aurretiazko fasera, baizik eta ondorengo laguntza ere eskaini behar dute laneratzeko egonkortasuna bermatzeko; hala, kalitate eskaseko enpleguetan sartu-irtenak bata bestearen atzetik izatea ekidin nahi da. Planteatzen diren beharrei ere erantzun behar zaie lanpostu bat eskuratzen denean, esaterako: zaintza-zerbitzuak, garraiobideak edo beharrezko tresnak eta uniformeak eskuratzea enplegua betetzeko.

Txostenak, gainera, oinarrizko beharrei erantzuteko prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea eta gizarteratzeko eta laneratzeko babes profesionalen eskubidea nahasteari buruz hitz egiten du. Alde horretatik, laneratzeko programak eta diru-sarrerak bermatzeko programak batzeko beharra jasotzen du, azken programa horien bidez enplegu bat eskuratzen duten pertsonak zigortu edo sustatu ez.

Azkenik, beste zenbait faktore azpimarratzen dira, adibidez: eragile sozialak eta ekimen sozialeko erakundeak inplikatzeko; enplegu-politiken eta laneratzeko programen erantzule diren pertsonen prestakuntza; genero-ikuspegia hartzeko beharra; teknologia berrien erabilaren optimizazioa; eta enpleguaren bilaketa aktibo egoeran dauden pertsonen gizarte segurantzako sistemetan kotizatu ahal izatea, hori bermatzea, askotariko arriskuak estaltzeko.

Aztertutako zortzi ikuspegi

Errealitate Sozialaren Behatokiak finantzaturako azterketak (SIIS Centro de Documentación y Estudios-ek egina), laneratzeko programei lotutako zortzi ikuspegi zehatz aztertzen ditu ere.

Honako hauek dira: gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermearrenak edo enpleguko zerbitzuak herritarrei arreta emateko leihatila bakar bat sortuz integratzea; enplegu-programaren erabiltzaileak

sailkatzeko eta segmentatzeko sistemak; laneratzeari berari zerbitzuak ematea eta prestazio osagarriak eskaintzea; laguntza duten enplegu-programak; lurralde-oinarria duten ekimenak, bereziki kaltetutako arloetan enplegua sustatzeko eta arlo soziokonomikoa leheneratzeko; diru-sarreraren berme-sistemen bidez enplegu bat eskuratzen duten pertsonentzako soldata-osagarria edo hobariak; gazte-bermearen programak eta, azkenik, enplegu bultzatzaileak.